

gizartea eta kultura garaikidea

APIRILA MAIATZA EKAINA 2022



Jar zaituz harremanetan Az-rekin

info@azkunazentroa.eus



Lege gordailua BI-249-2014

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.

Komikiko ezinbesteko figuren inguruko elkarrizketak eta podcasta

Komikitekak aurrera jarraitzen du komikiko figura nabarmenen eta beren lanen inguruko programazioarekin, Mediatekan topaketak eginez eta Azkuna Zentroaren webgunean entzungai egongo diren podcastekin. Hiruhileko honetako protagonistak [Alan Moore](#) eta [Dave Gibbons](#), [Marjane Satrapi](#), [Jiro Taniguchi](#) eta [Paco Roca](#) dira.

Alan Moore eta Dave Gibbon: Watchmen

Asteazkena, apirilak 6 · 18:30 - 19:30

Marjane Satrapi: Persépolis

Asteazkena, maiatzak 4 · 18:30 - 19:30

Jiro Taniguchi: El caminante

Asteazkena, maiatzak 25 · 18:30 - 19:30

Paco Roca: La casa

Asteazkena, ekainak 15 · 18:30 - 19:30

////////////////////////////////////

Topaketa

Mediateka. TK101

Sarrera dohainik aldeztu aurretik [Az Infon](#) edo [azkunazentroa.eus](#) helbidean izena emanda

////////////////////////////////////

AZ Irratiaren podcasta

[azkunazentroa.eus/es/actividad/dialogosimprescindibles-del-comic/](#)

////////////////////////////////////

Topaketa Naizen-Adingabe Transexualen Familien Elkartearekin

Ahots bat Erasorentzat. Trans garai baterako epilogoia erakusketaren barruan

Naizen-Adingabe Transexualen Familien Elkarteak topaketa hau antolatu du *Ahots bat Erasorentzat. Trans garai baterako epilogoia* erakusketaren barruan.

Ikastetxei zuzenduta dago, eta gogoeta kolektiborako gune gisa planteatzen da, trans pertsonen errealitatea ezagutarazteko. Erakusketa bisitatu ondoren, Hikiru taldearen *Transformatzen* dokumentala proiektatuko da, gero elkarteko hainbat pertsonak beren bizitzaren lekukotasuna emango dute, eta, horrela, eztabaida hasiko da haur eta nerabeen transexualitateari buruzko zalantzak argitzeko.

////////////////////////////////////

Maiatzak 3 eta 4, asteartea eta asteazkena

////////////////////////////////////

Lankidetzan:



NAIZEN Nafarroako eta Euskadiko Adingabe Transexualen Familien Elkarte da. Laguntza, prestakuntza eta aholkularitza ematen dizkiete adingabe transexualen familiei, errealitate hori agerian jartzen dute eta haien eskubideak defendatzen dituzte. Transexualitatea despatologizatzea eta onartzea sustatzen dute, dibertsitatearen adierazgarri den aldetik, eta prestakuntza ematen diete adingabeekin esku hartzen duten profesionalei.
